

# GIDA

Eraso sexistarik gabeko jaiak



# ZERTARAKO GIDA HAU?

Sexu-erasoa, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen gisa, eraso zuzena da, pairatzen duten emakumeen duintasun eta osotasun fisiko zein moralaren kontrakoa; giza eskubideen urraketa larri eta toleraezina. Lehentasun osoa duen arazo sozial bilakatzen da, errotik mozteko, gizarte osoaren eta, bereziki, botere publikoen inplikazioa ezinbesteko duena.

Bilboko Udalak gida hau sortu du, emakume zein gizonei, mutil zein neskei, **SEXU-ERASOEN AURREAN NOLA JARDUN IRAKASTEKO**, betiere, ahalik eta modu xume eta egokienean goerari aurre egiteko gako nagusiak helarazte aldera.

## Zer dira sexu-erasoak?



Sexu-erasoak sexu izaera duten jarrerak dira, emakumeen borondatearen kontra egiten direnak: baimenik gabeko hurbilketak, larderia, ukitzeak, exhibizionismoa, bortxaketa...

## **INOIZ...**

- beldur izan eta urrats azkarragoz ibili zara atzetik urratsak entzutean?
- alde egin duzu taberna, metro, autobusetik norbait modu astunean hitz egiten ari zaizulako, nahiz eta bakean uzteko eskatu?
- presioa egin dizute edo behartu zaituzte sexu-harremanak edukitzeko, edozein mota edo intentsitatekoak izanik ere?
- haserretu zara emakumeak gogaitzen, molestatzen edo erasotzen dituzten jarrerak ikusita?
- pentsatu duzu erasorik gabeko jai aske eta parekideen alde lan egitea?

*Qida hau zuretzat da!*

Ez justifikatu indarkeria sexista, ez ahalbidetu. Alda ditzagun mutil eta nesken, emakume eta gizonen gainean ditugun jarrera, jokabide eta sinesmenak.

# NESKA!

- Segurtasunez ibili. Bete zeure bizi-espazioa. Ez mugatu zeure bizitza, **JARRI MUGAK GUSTUKO EZ DUZUN HORRI**.
- Izan konfiantza zeure irizpide propioan. Erasotua sentitzen bazara, eraso izango da. **"EKIN"**. Zeuk soilik dakizu zer gustatzen zaizun, zerk gogaitzen zaituen edo zerk sentiarazten zaituen erasotua. **"ZEUREA DA ERABAKIA"**.
- Eskubidea duzu **EZETZ** esateko. Inork ez du eskubiderik zuk nahi ez duzun ezer inposatzeko. **ZURE GORPUTZA ZEUREA DA**.
- Bizi sexualitatea **MODU ASKEAN**; nahi duzunarekin, nahi duzuna eta nahi duzunean. Gogoratu **EDOZEIN MOMENTUTAN ALDA DEZAKEZULA IRITZIA**. Zerbait gustuko ez baduzu, esan.
- **SORTU HARREMAN SANOAK** pertsona guztiekin.
- Ondo maite zaituenak, ondo nahi zaitu eta **ERRESPETUZ** tratatuko zaitu.



# MUTIL!

- Jaiak, kaleak... gaeuz zein egunez, pertsona orok gozatzeko dira. Eraso baten aurrean ez begiratu alde batera, **EZ IZAN LEKUKO; EKIN.** Zure parte-hartzea funtsezkoa da.
- Gogorarazi lagunei **EZ EZETZ DELA.** Emakume batek badauka iritzia aldatzea, eta zer nahi duen, noiz nahi duen erabaki dezake, gizon batek bezalaxe.
- Astuna edo lerdetsua izatea ez da ligatzea. Gogoratu **BEHIN ETA BERRIRO SAIATZEA JAZARPENA DELA; ETA JAZARPENA ERASOA DA.**
- **DROGEK EDO ALKOHOLAK EZ DITU ERASOAK JUSTIFIKATZEN.** Mozkortuta ere ez duzu onartu behar emakume bat eraso edo gogaitzerik.
- **SORTU HARREMAN SANOAK** pertsona guztiekin.
- Ondo maite zaituenak, ondo nahi zaitu eta **ERRESPETUZ** tratatuko zaitu.



# ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

- Ez isildu eta ez ezkutatu. **ERASOAREN ERANTZUKIZUNA ERASOTZAILEARENA DA**, ez erasoak pairatzen duenarena.
- **ERANTZUN ERASOTZAILEEI**, geldiarazi euren jarrerak.
- Eman babesa eta laguntza lagunari, ezagunari edo ezezagunari;  
**EZ UTZI BAKARRIK!**



# **SEXU-ERASOA EDOTA ERASO FISIKOA PAIRATU BADUZU, ZEURE ERABAKIA DA SALATZEA EDO EZ SALATZEA**

- Bilatu konfiantzako norbait lagun zaitzan.
- **24 ORDUZ MARTXAN** dauden telefono zenbaki hauek eskura izan.

## ***Salatu nahi ez baduzu***

**☎ 94 470 14 60**

Gizarte-larrialdietako Udal Zerbitzuak.  
Jakin beharreko guztia esango dizute

## ***Salatu nahi baduzu***

**☎ 092/112**

Udaltzaingoa

Aholkularitza eta ekintzarako protokoloa, Bilboko Udalak,  
Bilboko Konpartsak eta Merkatarien Elkarteak - Aste Nagusia.

# AUKERA HAUEK ERE BADAUZKAZU

- **Zuzenean ospitalera joan;** osasun azterketa egingo dizute, nahiz eta osasun txartelik izan ez. Salaketa bideratzeko betebeharra dute.
- **24 orduko guardiako epaitegira joan** (Ibañez kalea, 3), biktimari laguntzeko zerbitzuaz galdetu; bertan azalduko dizute guztia.



## GOGORATU

- **PROBAK** funtsezkoak dira izan daitekeen epaiketara begira. **EZ ALDATU ARROPA,** eta **EZ GARBITU** gorputzeko atal bat bera ere osasun azterketa egin arte.
- Osasun txostenen kopia eskatu, eta salatu.

ASTE MAGUSIA 2018